

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakaria Parlamentuko presidenteari eta Gobernuaren Nafarroako ordezkariari bisita egitera joan da

Nafarroako Lehendakariak hasi ditu agintaldiaren hasieran instituzioetara egiten diren bisitak, eta Parlamentura eta Ordezkaritzara joan da

Miércoles, 20 de julio de 2011

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria, asteazken honetan, Foru Erkidegoko agintari nagusiak instituzioetan bisitatzen hasi da. Bisita adeitsu horiek ohikoak izaten dira Nafarroako Gobernuan lehendakari berri bat agintzen hasten denean.

11:30ean, Lehendakaria Nafarroako Parlamentuaren egoitzara joan da, eta, han, Alberto Catalán Ganberako presidentek egin dio harrera.

Bi presidentek uste dute Organo Betearazlearen eta Organo Legegilearen arteko komunikazioak azkarra eta erraza izan behar duela. Horri esker, Gobernuaren ekimenak modu dinamiko eta eraginkorrean burutu daitezke eta Parlamentuak berez duen kontrola balia dezake.

12:30ean, Yolanda Barcina Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzara joan da eta, han, Elma Sáiz ordezkariarekin elkartu da.

Bileran, bi aldeek Espainiako eta Nafarroako gobernuen arteko lankidetzarako eta lanerako lotura estu eusteko interesa agertu dute. Lotura horrek leialtasuna eta konpromisoa izan behar ditu oinarri, eta bi administrazioek batera sustatzen dituzten proiektu garrantzitsuak aurrera ateratzeko bidea eman behar du.



Barcina eta Catalán Nafarroako Parlamentuan



Barcina eta Sáiz Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzaren egoitzan

Ostegun honetan, Barcina Lehendakariak instituzioetara bisitak egiten jarraituko du. Unibertsitate Publikora joango da, eta, han, Julio Lafuente errektorearekin elkartuko da 11:00etan. 12:00etan, Justizia Auzitegi Nagusira joango da Juan Manuel Fernández bertako presidentearekin egotera.

Datorren ostiralean, Lehendakariak beste bi bisita egingo ditu; bata Nafarroako Armadaren Komandantziara eta bestea Iruñeko Udalera. Lehenengoan, José Ignacio González Arteaga Armadako komandante nagusiarekin hitz egingo du 12:00etan eta, bigarreanean, Enrique Maya alkatearekin bilera egingo du 13:00etan.